.......

## Filmen emunaldixa

Jerardo Elortzak parte hartutako filmak ikusgai izango dira, Kepa Elortzaren sarreriarekin eta Agustin Goenagak aurkeztuta:

- *Gabon dut Anuntzio* (1999)
- *Liñugintza* (1974)
- *Aita Lasa, artzainen artzain* (1981)
- *Lope de Agirre* (1983)

## Omenaldixa

Ospakizunak hainbat atal izango dittu: alkatiaren berbak, poesia-errezitaziñua, bertsuak, proiekziñuak, kantuak, atxikimenduak... eta, tartian, jadanik gurekin eztagozen ekintzaille batzuk be gogoratuko dittugu.

## Ibillialdixa

Natur Eskolaren eskutik.
Txangua Araozdik Urrusulara izango da.
08:30ian Araozgo Saloian saldatxo bat hartu, ibillialdixaren nundik-norakuak jakin, eta aurrera!
Bidian Sandali eta makiñetxia bisittau ondoren, Urrusulara aillegauko gara ubidiari jarraittuaz. Dana launian.
Amaieria, 14:00ak aldera, kafe, mokadutxo edota baxoerdi bat hartuaz.





Oñatiko Udala

OÑATI
dabilen herria

# JERARDO ELORTZAri OMENALDIXA



KULTUR astia

*EKAIÑAren 1etik 9ra*

OÑATI

# Jerardo Elortza Egaña

**Oñati (Gipuzkua) (1944)**

Oñatiko Kale Zaharrian jaixo zan. Aitta Torreauzoko Lazarraga (Elaxar) baserrikua eta ama, berriz, Garibai auzoko Dolaetxekua. Aleman filologia ikasi eben Deustuko Unibersidadian. Bergarako Aranzadi ikastolan hiru urtian irakasle jardun eta gero UNEDeko Euskal Kultur departamenduan beste hemeretzi urtian ibilli zan. Eusko Jaurlaritzako Kultura saillian urtebetian lan egin eta gero, Oñatiko Mondragon Unibersidadian irakasle izan da erretirua hartu arte. 2009tik 2016ra *Bidegileak* liburuxken bilduma zuzendu dau. Euskaltzale eta historia zale amorratua da Jerardo. Oñatiko Tere Letamendirekin ezkondu eta seme-alaba bi izan zittuein, Urdin eta Irantzu.

Herrixan oso pertsona ezaguna da Jerardo, batez be, azkenengo berrogeita hamar urtian, sail askotan, herriko kulturiaren alde egin dittuen lanakatik: hizkuntzan, literaturan, antzerkixan, historian, etnografian eta beste zenbait esparrutan; danetan herriko gaixak edo orokorraguak landuaz eta mailla gorenera eruanaz.

Horregatik ba, omenaldi bat eskiñi gura xaugu, ondo mereziutakua. Eta Jerardorekin batera, kultura berpizten hainbeste urtian saiatu diran beste pertsona batzuk be gogoratu gura dittugu.

Hona hemen, helburu horrekin gertatu dogun Kultur Astia, danon gustukua izango dalakuan eta Jerardok izan eben eta oraindik be dakon ilusiñua gaztiaguen artian ixuketako asmotan.

# Egittaraua

**Erakusketia** Kultur Etxian
Jerardo Elortzaren gaiñeko erakusketia
*2018-06-01etik 08ra*
Egunero: 18:00 – 20:00

.......

**Hitzaldixa** Santa Ana antzokixan
Jerardo Elortza 'Egille'
Hizlarixa: Juan Martin Elexpuru
*2018-06-04*
Astelehena 19:00

.......

**Mahai-ingurua** Kultur Etxian
Moderatzaillia: Luxio Ugarte
*2018-06-06*
Eguaztena 19:00

.......

**Filmen emunaldixa** Kultur Etxian
Aurkezlia: Agustin Goenaga
*2018-06-07*
Eguena 19:00

.......

**Omenaldixa** Santa Ana antzokixan
Aurkezlia: Olatz Osa
*2018-06-09*
Zapatua 12:00

.......

Omenaldixaren ostian **bazkarixa** izango da Etxe-Aundi jatetxian.

.......

**HURRINGO ASTIAN**
**Ibilialdixa** Araotz – Urrusula
Gidarixak: Jerardo Elortza eta Imanol Biain
*2018-06-17*
Domekia 08:30 Araozgo saloian

.......

## Erakusketia

Inauguraziñua ekaiñaren 1ian 18:00etan izango da.

Luntxa egongo da.

Erakusketia itxiko da ekaiñaren 8xan, egubaikotza, 20:00etan

## Hitzaldixa

Juan Martin Elexpuruk Jerardo Elortzaren bizitza kultural eta akademikuaz jardungo dau.

Aurretik, Idoia Etxeberriak gertatutako bideo biografiko bat ikusiko dogu, eta Paulo Anduaga aita agustiñuak euren komunidadiaren eta Jerardo Elortzaren arteko harremanen barri emungo dau.

## Mahai-ingurua

1965-1980 urte inguruko Oñatiko kultur bizitzaren berpizkundia garaiko lekukuen eskutik.

Jerardo Elortza. Euxebi Osa (Ikastolia), Carmenchu Balzategui (Oñatz alkartia), Juantxo Madariaga (Udal liburutegiko batzordia).

Moderatzaillia: Luxio Ugarte.

.......